



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

DEIALDIA

Lehendakaritzak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 67.3. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentu honetako **Batzorde Iraunkorraren** bilkurarako dei egitea erabaki du. Bilkura heldu den **ostiralean, 2019ko ekainaren 14an**, eginen da, **10:00etan**, Batzar Aretoan. Hona

GAI-ZERRENDA

1. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren etorrerari erantzuteko kreditu-gehigarria ematen duen ekainaren 12ko 3/2019 Foru Lege-dekretua baliozkotzeari edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. (9-19/DLF-00003).
2. Nafarroako Gobernuaren erabakia, 2019ko ekainaren 4koa, zeinaren bidez luzatu baita honi buruzko irizpena emateko epea: "Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari atxikitako Nafarroako Estatistika Institutuak onetsitako 2018ko bizi-baldintzei buruzko gizarte-inkesta antolatzea eta biltzea, grabatzea, kodetzea, araztea eta balioztatzea prozedura irekiaren bidez kontratatzeko administrazio klausula partikularren orriko 8. klausulak legezketasuna ustez urratu izana". (9-19/DCN-00002).
3. Nafarroako Kontseiluaren 23/2019 irizpena, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legeari buruzkoa. (9-19/DCN-00004).
4. Nafarroako Kontseiluaren 24/2019 irizpena, zeinaren bidez argitzen baita ea ordenamendu juridiko indardunaren eta konstituzio-multzoaren arabera den 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duen Foru Lege proposamena. (9-19/DCN-00005).
5. 2018an emandako abalei eta abalaturako kopuruei buruz Nafarroako Gobernuak igorritako informazioa. (9-19/EPH-00003).
6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egindako aurrekontu-aldaketak, zeinak 2019ko urtarrilean, otsailean eta martxoan sartu baitziren erregistroan. (9-18/LEY-00017).
7. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egindako aurrekontu-aldaketak, zeinak 2019ko apirilean sartu baitziren erregistroan. (9-18/LEY-00017).
8. Nafarroako Kontseiluari buruzko 2018ko fiskalizazio txostena. Kontuen Ganberak aurkeztu du. (9-19/CCO-00009).
9. Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 3an egindako bilkuran hartutako erabakiak. (9-19/GOB-00016).
10. Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 10ean egindako bilkuran hartutako erabakiak. (9-19/GOB-00017).
11. Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiak. (9-19/GOB-00018).
12. Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakiak. (9-19/GOB-00019).
13. Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 30ean egindako bilkuran hartutako erabakiak. (9-19/GOB-00020).
14. Gobernu Kontseiluak 2019ko maiatzaren 8an egindako bilkuran hartutako erabakiak. (9-19/GOB-00021).
15. Gobernu Kontseiluak 2019ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran hartutako erabakiak. (9-19/GOB-00022).
16. Konstituzio Auzitegiaren epaia, 1632-2018 zenbakiko konstituzio-kontrakotasuneko arazoari buruzkoa. Arazoa Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Auzitegiak planteatu zuen, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru

Legea aldatzen duen abenduaren 27ko 19/2017 Foru Legearen xedapen iragankor bakarraren 4. apartatuta dela-eta. (9-18/RTC-00002).

17. Nafarroako Kontseiluaren 2018ko oroitidazkia. (9-19/DCN-00006).
18. Hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundien artekoa, fakturazio- eta kobrantza-sistemak kontrolatzeko tresnak aztertu eta ezartzeko Ticketbal/TicketsiBai Proiektua garatzekoa. Diputatuen Kongresuak igorri du.
19. Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren ebazpena, Mikel Buil García, María Teresa Sáez Barraok eta Ainhoa Aznárez Igarzak aurkeztutako 387/2018 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren gainekoa.
20. Nafarroako Parlamentuaren 2018ko kontuak.
21. Hartu beharreko erabakia hartzea Legebiltzarra eratzeko Osoko Bilkurari dagokionez: eserlekuen banaketa eta zin egiteko formulak.
22. Nafarroako Parlamentuaren hamargarren legegintzaldia eratzeko bilkurako protokoloari buruzko proposamenak.
23. Batzorde Iraunkorraren txostena.

Iruñean, 2019ko ekainaren 13an

LEHENDAKARIA



Ainhoa Aznárez Igarza